


MEMORIA 2024





AURKIBIDEA

I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.....	1
Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera	2
Berdintasun Batzordea.....	2
II. Jardun ildoak	3
1. Prestakuntzan lortutako emaitzak.....	3
1.1. Ikasleentzako prestakuntza	3
1.2. Lemari/A-Leader, TEKAZELko emakumeentzako programa	6
1.3. UIPRE formakuntza.....	6
1.4. Online prestakuntza.....	6
2. Ikerketan lortutako emaitzak.....	10
2.1. UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa	10
2.2. Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria	11
3. Unibertsitate bizitza.....	12
3.1. UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en plana	12
3.2. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa.....	13
3.3. Protokoloa, pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzekoa	14
3.4. STEM graduak nesken artean sustatzeko batzordea.....	14
4. Unibertsitate hedakuntza	16
4.1. UPV/EHUko bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren Kontziliazio Gida	16
4.2. CRUE - Berdintasuna	16
4.3. Berdintasunerako Zuzendaritzaren lankidetzaren hainbat proiektuetan	17
4.4. Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean.....	18
4.5. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan.....	20
5. Proiektuak eta eginkizunak.....	22



I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

UPV/EHUK, unibertsitate publikoa den heinean, emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromiso irmoa du. Horrela adierazten du, besteak beste, Estatutueta 4.3 artikulua: ***UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta dibertsitatearen errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rola eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkartza parekatua.***

Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, 2006an, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako zuzendari kargua sortu ziren (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua), 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxan jartzera bultzatu baino urtebete lehenago. 2007an, berriz, UPV/EHUko Emakume eta gizonen egoeraren lehen diagnostikoa ere egin zen.

Ordutik, baina, lan handia egin da Berdintasunaren esparruan eta horren adierazle dira III. en Emakume eta gizonen berdintasunerako plana (2019-2024) eta 2018an onartutako ***Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa***. 2023an beste jauzi bat eman zen ildo honetan eta unibertsitateko aditu talde baten laguntzaz ***Genero berdintasuneko diagnostikoa*** ere egin eta argitaratu zen.

2024ko uztailan, diagnostikoko emaitzak kontutan izanik eta hilabete luzez aurrera eramandako negoziazio prozesu baten ostean Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en plana onartu zen. Plan honek aurrekoen filosofiarekin jarraitzen du, hau da, Euskadiko unibertsitate publikoa erreferente izatea gure lurraldean genero-berdintasuna eta aniztasunaren arloko ikerketan, transferentzian, prestakuntzan eta gizarte-kontzientziazioan (UPV/EHUko plan estrategikoaren kultura-ardatzaren eta gizartearen 4. helburua).



Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

Zuzendaria: Elena Leinena Mendizabal	elena.leinena@ehu.eus	946012172
Teknikaria: Enara Agirre Arrizabalaga	enara.agirre@ehu.eus	946018039
Teknikaria: Igone Martinez Alonso	igone.martinez@ehu.eus	946018071
Idazkaria: Ana Isabel Ríos Hernández	anaisabel.rihe@ehu.eus	946012171

Berdintasun Batzordea

Maite Muñoz Garcia de Iturrospe	Arteen eta Giza Zientzien irakasle-ikertzailea
Aitor Urresti González / Borja Calvo Molinos	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Ana Isabel Puente Martínez	Zientzietako irakasle-ikertzailea
David Pastor Andres	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Naiara Agirregoitia Marcos	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Deñe Larrabeiti Mendikute	TEKAZELEko langilea
Julen Zabala Alonso	TEKAZELEko langilea

Era berean, UPV/EHUko ikastegi bakoitzean Berdintasun Batzorde bat dago.

II. Jardun ildoak

1. Prestakuntzan lortutako emaitzak

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuetako bat, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezen sustatzea da. Horretarako, hainbat prestakuntza ikastaro diseinatu eta bultzatu ditugu unibertsitateko kolektibo guztientzat:

1.1.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horretarako, 2024an, aurreko urteetan bezalaxe, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik sari hauek eman zaizkie UPV/EHUko ikasleei:

- **Genero ikuspegia gradu amaierako lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako IV. Planaren (2024-2028) 1. Ardatzeko 2.1. jardun-lerroan puntuari aurreikusitako ekintza betez, *Genero ikuspegia duten Gradu Amaierako Lanen, Master Amaierako Lanen eta Doktorego Tesien aitorpena finkatzea, Francisca de Aculodi, María Goyri eta Micaela Portilla sarien bidez*, alegia, UPV/EHUk Francisca de Aculodi sariaren XI ediziorako deialdia egiten du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

2024ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Francisca de Aculodi sariaren X. edizioko sariak banatu ziren (2023an defendatutako GRALak) guztira 33 GRAL aurkeztu ziren. 2024ko udazkenean, aldiz, sariaren XI. edizioko lanak aurkeztu dira, guztira 39, eta hauen epaia 2025ean izango da. Hemen aurkeztutako GRALen banaketa:

AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LANAK		
	X. EDIZIOA	XI. EDIZIOA
Gizarte eta Lege Zientziak	21	21
Arte eta Humanitateak	7	8
Osasun Zientziak	5	7
Ingeniaritza eta Arkitektura	0	2
Zientziak	0	1
GUZTIRA	33	39

Azken edizio honetan Ingeniaritza eta Arkitektura edota Zientzietan jaso dira berriz ere hautagaiak. Hala ere, azken edizioetako bilakaera aztertuta ikusten da

jakintza esparru hauetan zaila dela hautagaien presentzia mantentzea.

Ondorengo taulan ikus daitezke Francisca de Aculodi sariko X. Edizioko sarituak:

FRANCISCA DE ACULODI SARIKO X. EDIZIOKO SARIDUNAK			
Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Zaintza ekosistemak. Lurralde plangintza ikuspuntu feministatik. Deba eta Itziar herrien hirigintza analisiak</i>	Amaia Arocena Txurruka
	Accesita	<i>Genero desberdintasunaren beste ezpala bat. Genero rola eta desberdintasunak goi mailako irakaskuntzan</i>	Ihantz Permach Agirre
	Gaztelania	<i>Dani Alves. Estudio de caso sobre cultura de la violación y prensa deportiva</i>	Carmela Santamaria Bezanilla
Arte eta Giza Zientziak	Euskara	<i>Makina-Xemeingo Emakumeen ibilbidea: herriko ondarearen interpretazioa genero ikuspegitik</i>	Mara Barrutia Reboredo
	Gaztelania edo beste hizkuntza bat	<i>Técnicas de traducción para un uso del lenguaje no sexista</i>	Nora Acosta López
Osasun Zientziak	Euskara	<i>Kirolean itxura eta errendimendua hobetzeko substantziak eta gorputz-irudiaren distortsioa aztertuz: emakumeenganako eta LGTBQ+ komunitatearekiko ikuspegia</i>	Jon Gil Barreiro
	Gaztelania	<i>Proyecto de concientización con adolescentes sobre la discriminación hacia las mujeres líderes</i>	Alazne Apraiz Arias

- **UPV/EHUko Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen Maria Goyri saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako IV. Planaren (2024-2028) lan ildoek jarraiki UPV/EHUK Maria Goyri sariaren XII. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK		
	Guztira	Jakintza arloen arabera
XI. Edizioa (2021/2022)	11	8 Gizarte eta Lege Zientziak 1 Osasun Zientziak 2 Ingeniaritza eta Arkitektura
XII. Edizioa (2022/2023)	14	9 Gizarte eta Lege Zientziak 1 Osasun Zientziak 4 Arte eta Giza Zientziak
XIII. Edizioa (2023/2024)	12	7 Gizarte eta Lege Zientziak 2 Osasun Zientziak 3 Arte eta Giza Zientziak

Ondorengo taulan 2024ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean saritutako lana:

MARIA GOYRI SARIKO XII. EDIZIOKO SARIDUNA	
<i>La soledad y el aislamiento como temas literarios. Marlem Haushofer y Thomas Bernhard desde la tematología comparatista</i>	Javier Ramos Escapa
Accesita	
<i>El sistema internacional de la prostitución: un análisis desde la perspectiva de género</i>	Alba Rodríguez Fernández

Maria Goyri saria jada kontsolidatuta dago UPV/EHUUn, baina nabaria da esparru ez tradizioaletatik lanak jasotzeko zailtasuna. Edizioen baten jaso badira ere, eskaera horien presentzia ez da mantentzen. Hori dela eta, esparru horietan lan egitea bertako berdintasun batzordeekin koordinatuz garrantzitsua da aurrera begira.

- LGTBI+ ikuspegia Gradu Amaierako eta Master Amaierako Lanetan barne hartzearen Empar Pineda saria

UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren (2024-2028) IV Ardatzeko: Pertsonak 2.5 jardun lerroan aurreikusitako helbururantz aurrera egiteko ahaleginean, **"LGTBI+ tematikako GRAL, MAL eta doktorego tesi onenei emandako Empar Pineda sariak eta Unidibertsitatea film laburren lehiaketako sariak sendotzea, UPV/EHU genero edo sexu orientazio aniztasuna errespetatzen duela aldarrikatzeko eta zabaltzeko modu gisa"**. Helburu hau betetze aldera UPV/EHUK Empar Pineda sariak antolatzen ditu eta 2024 urtean sari honen IV.

edizioko sariak banatu dira eta V.en edizioa ere antolatu da. Sari honen helburua LGTBI+ ikuspegia barne hartzen duten lanak balioestea da eta aniztasuna unibertsitatean ere aldarrikatzea.

AURKEZTUTAKO LANAK	
	Guztira
I. Edizioa (2019/2020)	10
II. Edizioa (2020/2021)	15
III. Edizioa (2021/2022)	11
IV. Edizioa (2022/2023)	9
V. Edizioa (2023/2024)	11

Aurkeztutako lanetan igoera bat antzeman da; beraz, Empar Pineda sariak jada errotuta daude unibertsitatean eta LGTBI+ ikuspegiari identitate propioa eman ahal izan zaie GrAL eta MALetan. Aurreko edizioetan GrAL edo MALak bakarrik aurkezteko aukera bazegoen ere; dagoeneko, IV.en Berdintasun Planaren barruan, doktore tesiak ere aurkez daitezke sari honetara.

EMPAR PINEDA SARIKO IV. EDIZIOKO SARIDUNAK		
Euskara	Hutsik	
Gaztelania	<i>Las realidades silenciadas de las personas intersex: discriminaciones y vulneraciones de derechos consentidas por la legislación</i>	Arrate Gorrotxategi Lopez
	<i>Accesita</i> <i>La violencia hacia las mujeres trans en el contexto de una sociedad patriarcal</i>	Iratxe Yanguas Aguirre

1.2.- Lemari/A-Leader, TEKAZELeke emakumeentzako programa:

UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en planeko V.en Ardatzeko: Gobernantza eta baliabideak 1.4 jardun lerroak jasotzen duen moduan ***“Emakume akademikoen eta TEKAZEL emakumeen (Akademe eta A-Leader/Lemari) ahalduntzea eta lidergoa lortzen lagunduko duten prestakuntza programak sendotzea”***.

Lemari programa, Akademe programaren eredura sortu zen UPV/EHUko emakume TEKAZELentzat eta 2024an 14 emakumek burutu zuten Bizkaiko campusean, Leioan hain zuzen ere.

Programa Maru Sarasolak dinamizatzen du Akademe programa bezala eta parte hartzaileen balorazioak ezin hobeak dira orohar. Hala ere, 2025erako aldaketa aurreikusten da Maru Sarasolak erretiroa hartuko duelako. Dena den, UPV/EHUko Berdintasunerako zuzendaritzak programa honen aldeko apustu irmoa dauka eta, aldaketak aldaketa, mantendu eta indartzeko asmoa dago.

1.3.- UIPRE Irakasleentzako formakuntza:

2024an azken urteetan aurrera eramane ez zen formakuntza formatu bati heldu zitzaioen berriz ere, UIPRE irakasleentzako formakuntza hain zuzen ere. Irakasle-ikertzaileentzako formakuntza modalitate hau HELAZ (Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua) sailarekin elkarlanean antolatu zen.

Online ikastaroetan izena ematen zuten irakasle eta ikertzaileen kopuru baxua kontutan izanda UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzan aspalditik mahai gainean zegoen ekintza bat zen. Hala ere, aurrera eramateko erabakia Bilboko Ingeniaritza Eskolako Berdintasun Batzordeko eskaera batetik etorri zen. Bertan STEAM eta generoa lotzen zuen formakuntzaren baten beharra ikusten zuten eta, eskakizun honi helduta, ***Estereotipos implícitos y desigualdades de género en áreas STEAM*** ikastaroa antolatu zen 2024ko ekainean Marta Macho Stadler irakasleak emanda Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Harrera aparta izan zuen ikastaro honek eta aurrera begira gaian sakontzeko formakuntza gehiago ere eskatu zizkiguten.

Hau dena ikusirik garrantzizko deritzogu irakasle-ikertzaileentzat UIPRE formakuntzetan sakontzea, jakintza esparru tradizionaletan eta STEAM alorrekoetan ere bai.

1.4.- Online prestakuntza

2024an, aurreko urteetan bezalaxe, online prestakuntzen eskaintza mantendu egin da udazkeneko online ikastaroen eskaintzarekin.

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzako formakuntza eskaintza honek aurreko urteetako ibilbidea jarraitzen du eta harrera ona du unibertsitate komunitatean, bereziki ikasleen artean. Daukan arrakasta izanda ere, nabaria da gizonen parte hartze baxua, gehienetan %15tik beherakoa. Gizonen parte hartzea gehitzea erronka garrantzitsuenetakoa bat da uneotan UPV/EHUko



Berdintasunerako Zuzendaritzarentzat.

Formakuntza eskaintzari dagokionez, azken edizioetako ikastaro berberak eskaintzen dira, batzuk UPV/EHUrenak dira eta beste batzuk Emakunderekin elkarlanean:

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzakoak diren ikastaroak:

- Hizkuntza inklusiboa
- Hezkidetzaren alde busti!
- Sexu-dibertsitatea
- Haurren aurkako sexu abusuak

Emakunderekin elkarlanean:

- Emakume eta gizonen berdintasuna
- Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak
- Emakumeen aurkako indarkeria

Aurtengo formazio ikastaroetan aipatu behar da bi jakintza arloko ikasleek eman dutela izena eta akreditatu direla bereziki, hau da, Medikuntza eta Erizaintzakoak batetik eta Psikologiakoak bestetik. Horrek esan nahi du zainketa fisiko zein psikologikoarekin zer ikusirik duten ikasketetako ikasleek nolabaiteko sentsibilizazio eta konzienziazioa dutela generoarekiko.



Online ikastaroen XII. Edizioa, 2024/2025 ikasturtea, bakarra

ONLINE IKASTAROA	IRAUPENA	ESKAINITAK OPLAZAK	IZEN-EMATEAK				ONARTUAK				AKREDITATUAK			
			E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA
Emakume eta gizonen berdintasuna	25 ordu	200	158	26	1	185	153	26	1	180	76	14	0	90
Hizkuntza inklusiboa	25 ordu	200	147	26	4	177	142	23	4	169	77	11	2	90
Maskulinitateak	25 ordu	200	126	61	1	188	89	50	1	140	55	29	1	85
Sexu-dibertsitatea	30 ordu	200	194	34	4	232	166	30	4	200	83	14	4	101
Hezkidetzaren alde Busti!	75 ordu	100	89	20	0	109	80	20	0	100	32	6	0	38
Haurren aurkako sexu abusuak	35 ordu	200	211	21	1	233	181	19	0	200	126	9	0	135
Emakumeen aurkako indarkeria	25 ordu	200	163	16	2	181	153	14	2	169	116	9	2	127
GUZTIRA		1300	1088	204	13	1305	964	182	12	1158	565	92	9	666
			%83'37	%15'63	%1		%83'25	%15'72	%1'03		%84'83	%13'81	%1'36	

2. Ikerketan lortutako emaitzak

Hainbat azterlanek, UPV/EHUko ikerketen esparruan emakumeen eta gizonen parte hartzeari buruzko 2023ko diagnostikoak eta urtero UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ateratzen duen Berdintasuna zenbakitan txostenak egoera bera azaleratzen dute: ikerketetan desberdina dela emakumeen eta gizonen egoera, baita jakintza arloaren arabera ere. Hau da, nahiz eta emakume ikertzaile kopurua antzekoa izan, karrera akademikoan aurrera egiten den heinean, emakume ikertzaileen produkzioa murriztagoa da gizonena baino eta horrek ekartzen du emakume katedradun gutxiago egotea eta soldata arrakala handiagoa izatea emakume ikertzaile eta gizonen artean. Horren arabera, dagozkion neurriak hartu beharko dira, berdintasunerako bidean aurrera egiteko.

Edozein kasutan, 2024ko datuen arabera, arlo guztietan, emakumeek aurkeztutako tesien ehunekoa gizonena baino handixeagoa da (%51), Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren arloetan izan ezik, hori pixka bat txikiagoa baita (%31). Nabarmenezkoa da, halaber, Osasun Zientzien arloa, emakumeek aurkeztutako tesiak %64 dira eta Artean eta Giza Zientzietan %70.

Hala ere, UPV/EHUko 2023ko diagnosiaren emaitzaren arabera azaldu zen emakume IN gehienak KO-IN zirela. Hau da, ez dira eurak bakarrik IN. Kasuen %41ean, gutxienez emakume bat zegoen ikertzaile nagusi gisa (IN). Baina emakume bat (bakarrik) edo beste emakume bat lagun duten talde eta proiektuen datuak aztertzerakoan, portzentaia %25era jaisten da. Datu hauek kontuan hartuz, ikerketan erabakitzeke ahalmena duten emakumeen eta gizonen arteko desoreka askoz garrantzitsuagoa da. Datu hauek ikusita adi egon beharra daukagu aurrera eramaten diren berdintasunerako politikak benetan eraginkorrak izan daitezen.

Honen inguruan, UPV/EHUko berdintasunaren aldeko ekintza positibo bezala ikerketa proiektuetan bultzatzen den ekintza bat aipa genezake. Hau da, emakume gutxien ordezkartuta dauden arloetako ikerketa taldeetako proiektuei 2 puntu gehiago ematen zaizkie, Ikertzaile Nagusia emakumea bada.

Erabilitako irizpidea edozein dela ere, ikusten dugu IN emakumeen presentzia askoz txikiagoa dela Ingeniaritzako eta Arkitekturako ikerketa-taldeetan edo tesi zuzendaritzatan 2024ko datuen arabera (%27), eta hori bat dator irakaskuntza-adar horretako IIPn dagoen maskulinizazio handiarekin.

Oinarri honetatik abiatuta, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo ekintzak jasotzen ditu:

2.1.- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa



UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en planeko V.en Ardatzeko: Gobernantza eta baliabideak 1.4 jardun lerroak jasotzen duen moduan ***Emakume akademikoen eta TEKAZEL emakumeen (Akademe eta A-Leader/Lemari) ahalduntzea eta lidergoa lortzen***

lagunduko duten prestakuntza programak sendotzea". Ildo horretan 2024an Akademe programako VIII. en edizioa jarri zen martxan, Maru Sarasola formatzailearekin egingo zen azkena; izan ere, 2025ean erretiroa hartuko du. Hala ere, UPV/EHUren apustua Akademe programaren alde sendoa da eta horren adierazgarri dira programa amaitu duten 250 emakume baino gehiago. Horietatik 120 baino gehiagok ardura postuak izan dituzte unibertsitateko espazio ezberdinetan.

2.2.- Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria

UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en planeko I.en Ardatzeko: Genero ikuspegia eta georia eta praktika feminista txertatzea irakaskuntzan, bai graduatan bai graduondokoetan 2.1 jardun lerroak jasotzen duen moduan *"Genero ikuspegia duten Gradu Amaierako Lanen, Master Amaierako Lanen eta Doktorego Tesien aitorpena finkatzea, Francisca de Aculodi, María Goyri eta Micaela Portilla sarien bidez"*. Ekintza hau aurrera eramateko, UPV/EHUK Micaela Portilla Vitoria Sariaren XI ediziorako deialdia egiten du ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko UPV/EHUko tesi onenarentzat.

2024ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Micaela Portilla Sariaren XI. edizioko saria banatu zen eta, saria sortu zenetik, urte hauetan zehar 55 **hautagaitik gora aurkeztu dira**.

Micaela Portilla sariko azken irabazleak		
Edizioa	Tesia	Egilea
VIII. Edizioa (2019)	<i>La depresión y su recuperación. Una etnografía feminista y corporal</i>	Maria Zapata Hidalgo
IX. Edizioa (2020)	<i>Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografía bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak</i>	Miren Guillo Arakistain
X. Edizioa (2021)	<i>Transfeminismotik ekarriak haur hezkuntzara: Eskola identitateari buruzko kasu azterketak neoliberalismo garaian</i>	Irati Leon Hernandez
XI. Edizioa (2022)	<i>Irun eta Hondarribiko Alardeak eta genero ordena. Ikuspegi historiko bat 1993-2008</i>	Ilargi Bengoetxea Gartzia
	<i>Accesita</i> <i>Comunidad, ruralidad y género. Una etnografía en el valle del Roncal</i>	Ainara Barron Iriarte

3. Unibertsitate bizitza

3.1.- UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en plana

2024ko uztailaren 18an UPV/EHUko [Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en plana](#) onartu zen eta unibertsitatearen gidalerroa izango da hurrengo urteei begira (2024-2028). UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan onartu aurretik, Batzorde Intersektorialean ordezkaritza sindikalaren gehiengo babesa lortu zuen. Plan honek ondorengo lehentasunezko helburu finkatzen ditu hurrengo lau urteei begira:

- **Berdinzalea:** Gustatuko litzaiguke unibertsitateko soldata arrakala erdira murriztea. Irakasle-ikertzaileen artean, emakume katedradunen edo osoen ehunekoa % 40ra hurbiltzea, eta TEKAZEL langileen artean, A maila duten emakumeen ehunekoa bat etortzea gutxienez TEKAZEL emakumeen guztizko ehunekoarekin. Unibertsitateko zuzendaritza taldea eta ikastegietako zuzendaritza taldeak paritarioak izatea.
- **Segurua:** Unibertsitateak izan nahi du genero jazarpenik eta indarkeriarik gabeko ingurune bat. Prebentzio eta jarduera politikak mantendu eta indartu nahi ditu genero indarkeria, sexu jazarpen edo jazarpen sexista kasuetan, biktimak babestuz eta lagunduz. Prestakuntza eman nahi diegu beren kargua dela-eta protokoloan jasotako kasuetan aritu behar duten pertsonen, protokoloaren aplikazioa hobetzeko, bai eta protokoloa bera zabaltzeko ere. Hori guztia genero berdintasunari eta indarkeria matxistei buruzko unibertsitate-gizartea gela baten laguntzaz.
- **Anitza:** Pertsonen beren genero identitatea eta sexu orientazioa askatasun eta naturaltasun osoz adieraziko duten unibertsitate bat izatea. Izen sentituaren protokoloari helden dioten pertsonen izen aldaketa erraztea, prozesu osoan lagunduta.
- **Zaintzailea:** Eremu lagunkoia izan nahi dugu, aintzat hartuko duena unibertsitatean lan egin edo ikasten duten pertsonen ongizate fisikoa eta emozionala, aukera emango diena bateragarri egiteko lan edo ikasle bizitza eta bizitza pertsonala edo familiarra. Beste helburu bat da TEKAZEL langileen % 10 ingururi aukera ematea telelanean edo urrutiko lan modalitate batean aritzeko.



3.2.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa

2018ko ekainetik Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa indarrean da eta 2018ko abendutik Genero Indarkeriazko Arretarako Batzordea ere eratuta dago, azken hau da Berdintasunerako Zuzendaritzara heltzen diren indarkeria kasuez arduratzen dena.

2024an UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzara jakinarazitako indarkerietan gorakada izan da. Ondorengo taulan ageri dira artatutako kasuak:

	Kasu kopurua	Kaltetutako pertsonak		
		Ikasleak	TEKAZEL	IIP
Indarkeria fisiko-psikologikoa*	17	17	0	0
Sexuagatiko jazarpena	7	7	0	1
Sexuagatiko jazarpena (LGTBQ+)	2	2	0	0
Indarkeria psikologikoa	1	1	0	0
GUZTIRA	28	27	0	1

(*) Datu hauei dagokienez aipatu beharra dago hainbat kasutan indarkeria fisiko zein psikologikoa kasu kolektiboei buruzkoak direla. Kasu hauetako batzuetan biktima bat edo bat baino gehiago indarkeria fisiko zein psikologikoetako biktima izan dira eta gainerakoak jazarpen ambientalekoak.

Azken urteetan nabaria da indarkeria kasuen gorakada UPV/EHUen, bai kasu kopuruan baita kaltatutako pertsonen kopuruan ere. Horrek argi erakusten du UPV/EHUren konpromiso irmoa genero indarkerien aurka eta urte luzez eginiko lanaketa.

- **INDARTU. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:**

UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako IV.en planeko IV.en Ardatzeko: Pertsonak 1.7 jardun lerroak datorren bezala ***"Ikasleentzako genero indarkerien prebentzio programak indartzea (Indartu eta Eraldatu), eta zenbat kasutan aplikatu diren argitaratzea Zuzendaritzaren Memorian."***

2024an programaren **VI. edizioa eraman da aurrera** online formatuan eta 160 emakumek hartu zuten parte, 80 emakumek gaztelaniako taldean eta 80k euskarakoan. Programa 53 emakumek amaitu zuten balorazio oso positiboekin. Ikusten denez programa hau jada urteko ekintzetan finkatuta dago eta ikasle emakumeek interesa daukate gaian eta programan bertan.

- **ERALDATZEN. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:**

Indartu programarekin batera, Eraldatzen programa ere jardun lerro garrantzitsua da UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako Iven planean.

Hala ere, Indartu programan ez bezala, parte hartzea txikia izatzen da; zaila da oraindik ere gizonezkoak genero indarkerietaz gogoeta edo lan egitera gerturatzea. 2024an eginiko IVen edizioan 12 gizonezko amaitu zuten programa, balorazio oso positiboekin. Ikusten denez partehartzea oso baxua da eta, hori dela eta, 2025erako programa hau TEKAZEL eta IIPko gizonei zabaltzea proposatzen da.

3.3.- Protokoloa, pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU*n* izena aldatzekoa:

Pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU*n* izena aldatzeko protokoloarekin UPV/EHU*k* bere konpromisoa adierazten du unibertsitateko kideen genero identitateari lotutako premiak asetzeko, eta bermatzeko genero identitatearen agerpen eta adierazpen askea, eta genero identitatean oinarritutako diskriminazio ororen desagertzea.

2024an 16 pertsonak eskatu dute izen-aldaketa protokolo hau aplikatuz. Protokolo hau jada unibertsitatean normaltasunez aplikatzen bada ere, nabarmentzekoa da orain arte izandako eskaera denak ikasleen partetik etorri direla.



3.4.- STEM graduak nesken artean sustatzeko batzordea:

UPV/EHUko Berdintasunaren IV Planak berebiziko bultzada ematen die STEAM jakintza esparruei eta, horrenbestez, batzorde hau ere indartu egiten da hurengo urteetara begira. Horren adierazgarri dira I. Ardatza: Prestakuntzako 3. Emakumeek ezagutzaren sorkuntzari eta gizarteari eginiko ekarpenak ikusaraztea **3.3 Emakume zientzialarien ekarpenak zabaltzea eta ikusaraztea, STEAM arloetan bereziki, erreferentzia eredu izan daitezen etorkizuneko profesionalentzat eta lider sozialentzat. Era berean, haien balio soziala nabarmentzea, eremu feminizatuenetan eta ospe gutxien dutenetan** edo **3.5 STEAM gradu guztietan espediente onena duten hiru emakume ikasleak saritzea.** STEAM graduak nesken artean bultzatzea uneotan UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren lan ildo garrantzitsuenetako bat da.



Aurreko urteetan bezala hainbat



ekintza ezberdin babestu dira STEAM alorrean; baina, ekintza mereziren bat azpimarratzearren, *STEAM udako campusa 2025 antolatzeako deialdia* izango litzateke. UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana IV.aren III. Ardatzak jasotzen duen bezala, bokazio zientifiko eta teknologikoen garapen goiztiarra bultzatzea, batez ere emakumeen kolektiboan eta STEAM arloetan bokazio goiztiarrak sustatzea UPV/EHUren lehentasunetako bat da. Hala dago jasota hurrengo jardun lerroan: 3.2. *Udako campusa sustatzea STEAM metodologiekin lotuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat*. Campusaren deialdia 2024an onartu da 2025eko udan aurrera eramateko eta STEAM batzordearen lanaren garrantzia azpimarratzen du.

2024an STEAM arloan aurrera eramandako ekintzen artean ondokoak ditugu aipagarri: UPV/EHUko STEAM fakultate eta zentroetan aurrera eramaten dituzten ekintzak otsailaren 11rako jaso eta hedapen bateratu bat ematea zuzendaritzaren webgunearen bitartez; Emakumeak Zientzian parte hartzen duten zentroei dirulaguntza ematea; Informatikako Fakultateak antolatzen duen Gladys del Estal sarian parte-hartzea eta Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako Generoa eta zientziaren komunikazioa jardunaldian parte-hartzea.

4. Unibertsitate hedakuntza

4.1.- UPV/EHUko bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren Kontziliazio Gida

UPV/EHUko Kontziliazio Gida uneotan, dauden neurriak islatzen baditu ere, dokumentu bizia da eta horren isla dira 2022an onartutako hainbat hobekuntza. UPV/EHUko Batzorde Intersektorialean habian jarritako negoziazio prozesuaren ondorioz unibertsitatean ordezkariak duten sindikatuek euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Horren ondorioz **UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialaren akordioa** onartu eta izenpetu zen **2022ko martxoaren 23an**, zeinetan Kontziliazio Gidaren gainean eginiko hainbat hobekuntza onartu ziren. Honen inguruko informazio guztia UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren web orrian dago eskuragarri.



Bestalde, 2024. urtean Berdintasunerako Zuzendaritzak mahai intersektorialean jarraitu du kontziliazioa eta erantzunkidetasuna uztartzeko emakume eta gizonen artean neurri berriak sustatzen eta 2014an indarrean jarri diren arauak gauzatzeko eskatu zaizkion argibideak ahalik eta ondoen ematen. Era berean, lan egin du legealdian izandako hobekuntzak kontziliazio gidan barneratu daitezen.

Era berean, aipatu beharra dago Kontziliazio Gidari dagokionean IV. Berdintasun Planak jaso duela egitasmo berri bat gida horretan jasota dauden neurrien aplikazioan interpretazio arazoak sortzen direnean. Hori dela eta, Planak batzorde bat eratzeke egitasmoa jasotzen du zalantzak argitzeko eta erabakitzeke kontziliazioaren inguruan aurkeztu diren erreklamazioak Administrazioaren erabakien aurka.

4.2. CRUE – Berdintasuna

2024ko uztailaren 19an ospatu zen Bilbon Espainiako Unibertsitate Errektore Biltzarreko (CRUE) Genero Berdintasuneko Politiken Lantaldearen I. Osoko Bilkura Bizkaia Aretoan. Eva Ferreira Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) errektore eta CRUEko Berdintasun Politiken ordezkariaren lehendakari zapean, lehen osoko bilkura honekin organo honen eraketa formalizatu zen, hortik aurrera Espainiako unibertsitateetako genero-berdintasunerako politikak garatu eta koordinatuko dituen erakundea.

Ferreira errektorearen ustez, lantalde hori «oso lotuta dago» CRUEren Zuzendaritza Batzordearekin, elkarrearen Berdintasun Politiketarako Lehendakariaren ordezkariaren figuraren bidez (gaur egun, ordezkaria da). "Horren ondorioz, ahots oso zuzena dugu, eta komunikazioa askoz ere arinagoa

da”, nabarmendu zuen errektoreak, eta azpimarratu garrantzitsua dela “agerian uztea” unibertsitateak “berdintasunaren eragile eta bultzatzaile” direla gizartean.

Bileran izan ziren Miren Elgarresta, Emakundeko Zuzendaria; Cristina López Villar, lantaldeko koordinatzailea eta A Coruña Unibertsitateko errektoreordea; Aitor Zurimendi, Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari Nagusia, eta Espainiako hainbat unibertsitatetako 70 ordezkari baino gehiago.



1 Irudia: CRUEko kongresura bertaratutakoak UPV/EHUko Errektorea

4.3. Berdintasunerako Zuzendaritzaren lankidetzak hainbat proiektuetan

Era berean, 2024an zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak hainbat entitaterekin proiektu desberdinetan hartu du parte, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

ERITALDIA	DATA	LEKUA
Mahai ingurua: “Euskal Emakumeak Zientzian”	Otsaila	Farmazia Fakultatea
Prensa aurrekoa: Bitartez (Observatorio del Periodismo Matxista)	Martxoa	Itsas Museoa
Zirgari sariak	Martxoa	BBK Aretoa Bilbo
Ekonomia, Enpresa eta Generoa VII JardunaldiaK: Emakumeen giza eskubideak eta enpresen erantzukizuna	Martxoa	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)
VI Congreso de Mujeres en el Sector Público	Martxoa	CRUE – Escuela de Administración Pública de Castilla y León
Lehenengo emakume ijitua zuzenbidean graduatua UPV/EHU	Apirila	Zuzenbide Fakultatea
Irrati saioa podcast	Maiatza	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Generoa eta komunikazioa zientzian	Ekaina	Catedra zientifikoa
RUIGEU jardunaldia	Maiatza	Mallorka
CRUE – Berdintasuna batzarra	Uztaila	Bizkaiko Aretoa

ENLIGHT – Nazioarteko elkarteratzea	Uztaila	Batzar Aretoa (Leioa)
Generoa eta Medikuntza	Iraila	Bizkaiko Aretoa
LAKET saria	Iraila	Leioako Udala
Gobernu ordezkariak	Iraila-Urria	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusak
Zuzendaritzaren aurkezpena	Urria	Elgoibarko IMH
Euskaditik mundura proiektua	Urria	Deustoko Unibertsitatea
Emakunde herri ituna	Urria	Deustoko Unibertsitatea
Beldur Barik Epaimahaia	Azaroa	Eusko Jaurlaritza
Leioako Laket Saria	Uztaila	Leioako Udaleko Saria
CRUEko Ikusatzaille Sektorialeko Batzarra	Azaroa	Mallorkako Unibertsitatea

Aipagarriak dira azken urteetan estatu eta Europa mailan UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak izan duen presentzia, bai Alares fundazioaren eskutik, RUIGEU sarean, Europako Unisafe proiektuan, Estatuko Gobernu ordezkariarekin izandako lankidetzan, CRUEko berdintasun delegazioan edota Enlight Proiektuan gure Akademe programa aurkezterakoan. Guztietan interes bizia piztu dute UPV/EHUtik aurrera eramaten diren politika eta ekintzak berdintasunaren alde eta indarkerien aurka, gure unibertsitatea erreferente bihurtuz, bereziki genero indarkerien aurkako politiketan.

4.4.- Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean

- **Martxoaren 8a:** Martxoaren 8ko 2024an ekitaldi akademiko instituzionala Bizkaiko campuseko Bilboko Hezkuntza Fakultatean ospatu zen. Aurreko urteetan bezala antolakuntza UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren esku egon zen zuzenean eta streaming bidez guztira 80 pertsona baino gehiagok jarraitu zuen ekitaldia.

Aurreko edizioetan ez bezala, jakintza esparru bakoitzetik emakume bat omendu beharrean era orokor batean egin zen. Hau da, lau emakume omendu ziren jakintza esparrua kontutan hartu gabe. Horretarako proposamenak zentroetako berdintasun batzordeetatik jaso ziren eta guztiak berdintasunaren alde edo/eta feminismoan ibilbide oparoa izandakoak.

Zentroa	Omendua
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	Maria Dosil Santamaria
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Alicia Garcia de Galdeano Zaldivar
Zuzenbide Fakultatea eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	Jasone Astola Madariaga
Bilboko Ingeniaritza Eskola	Natalia Aranburu Rojas

Omenaldiaz gain, urtero bezala Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatu ziren.



2 Irudia: Martxoak 8ko omenduak eta sarituak

- UniDibertsitate Eguna

2024ko ekainaren 10ean IV.en edizioa ospatu zen Bizkaiko campuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean. Ekitaldian Empar Pineda saria eta UniDibertsitatea film laburren lehiaketako sariak banatzeaz gain, Tania Arriaga Azkarate irakaslea omendu zen aniztasunaren aldeko bere lan eta konpromezuagatik.



3 Irudia: UniDibertsitatea eguneko omendu, saritu eta bertaratuak

- UPV/EHUko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna (2024ko azaroak 25)

2024an ekitaldi akademiko instituzional honen IV.en edizioa ospatu zen **Bizkaiko campuseko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean** azaroaren 27an. Aurreko edizioetan bezala, generoko indarkerien inguruko alor ezberdinetan sakontzea izan zen helburua eta, horretarako, Sortzen ahokularitzako Norma Vazquez Garcia izan zen hizlaria; psikologo eta psikoterapeuta, genero indarkerietan aditua. Hitzaldiaren izenburua "Ez dago bainarik, sinisten zaitugu" izan zen eta indarkeria matxisten inguruan egin zuen gogoeta Normak, bai biktimak nola bizi duen baita gizarteak indarkeria hauen aurreran izaten duen jarreraz.



4 Irudia: A25eko ekitaldiko hizlaria, Norma Vazquez, zentroko dekanoa, Berdintasunerako Zuzendaria eta Idazkari Nagusiarekin

Ekitaldia streaming bidez ere zabaldu zen eta, guztira, 50 pertsona inguruk jarraitu zuten.

4.5.- UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan eta ekitaldietan

2024an zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak eta UPV/EHUko berdintasunerako ekintza eta aurrera eramandako politikek hainbat agerraldi izan dituzte komunikabideetan (SER irratian, Jaurlaritzako Orientatuz aldizkarian, Bizkaia Irratian, Diario de Noticias Araban, e.a.).

Bestalde, Berdintasunerako Zuzendaritzak parte hartu du unibertsitateko barne komunikazio hedabideetan egun seinatueta artikulak, adierazpenak eta manifestuak burutzen, unibertsitateko kolektibo guztiak sentsibilizatzeko helburuarekin.



Nabarmentzekoa da UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren jardunetatik indarkeria matxistek eta hauei ematen zaien tratamenduak izan duen tokia. Indarkeria kasuak igotzen joan diren bezala komunikabideetan izan duten espazioa ere gehitzen joan da. Horretaz gain, komunikabideetan ere presentzia nabaria izan dute CRUE – Idazkaritza Nagusietako Batzarrean, Bizkaia Aretoan ospatu zena eta IV.en Berdintasunerako Planaren aurkezpenean, baita Bizkaia Aretoan burutu zena hedabideen aurrean.

5. Proiektuak eta eginkizunak

2024an UPV/EHUko Berdintasunerako IV. en plana onartu zen eta, horrela, hurrengo lau urteetako gidalerro nagusiak finkatuz. Unibertsitateko esparru ezberdinak barne hartzen baditu ere hiru esparru azpimarratu daitezke hurrengo urteei begira:

Lehendabizikoa indarkeria matxisten aurkako lana izango litzateke, uneotan UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren lan kargaren ia erdia eramaten duena. Azken urteetan indarkeria kasu kopurua gehitu da eta baita handitu ere atenditu diren kasuen konplexutasuna. Hori dela eta, **Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa** ardatz hartuta, indarkeria kasuen arreta eta prebentzio lanak ezinbestekoak dira oraingo jardunerako baita aurrera begira etorriko direnetarako.

Aniztasunak ere gero eta garrantzia handiagoa hartu du aurrera eramandako politiketan, UPV/EHU unibertsitate anitza izateko lanaren erakusgarri. Ildo estrategiko eta garrantzitsua den heinean bertan egiten diren lanek (Trans protokoloa, Enpar sariak, UniDibertsitatea eguna...) gero eta presentzia handiagoa daukate unibertsitatean. Honen ildotik Berdintasunerako Zuzendaritzak hurrengo urteei begira aurreikusten du bai indarkerien aurkako protokoloan zein berdintasunaren planean hainbat aldaketa burutu behar direla sexu dibertsitatearen arloan unibertsitateak eskaintzen dituen baliabideak ezagutarazteko eta aniztasun honi ikusgarritasuna emateko helburuekin.. Ildo honetan, aurreikusten da UPV/EHUko Berdintasun Batzordean genero dibertsitateari leku zabalago bat eman behar zaiola ordezkaritza indartuz.

Azkenik, azken urtean gorakada handia izan duen ardatza STEAMekoa izango litzateke. Agerikoa da STEAM jakintza esparruetan emakume ikasleen presentzia baxua dela eta horri begira hainbat neurri jarri dira mahai gainean. Denen artean garrantzitsuenetariko bat STEAM Batzordearen sorrera eta finkapena litzateke: batzorde estrategikoa da UPV/EHUko etorkizuneko lan-ildoei begira.